

TXIKITTO



*Ipurterreko saridunak
eta euren ipuinak*

...eta kitto! EUSKARA ELKARTEAren LH eta DBHko ikasleendako *IPURTERRE IPUIN* *LEHIAKETAREN XIV. edizioa*



...eta kitto! Euskara Elkarteak, Eibarko ikastetxeekin elkarlanean, Ipurterre Ipuin Lehiaketaren XIV. edizioa antolatu du. LH eta DBHko D eta B ereduko ikasleek hartu dute parte eta, guztira, 982 ipuin jaso dira. Hurrengo orrialdeetan lehiaketan sarituak izan diren 11 ipuinak irakurtzeko aukera izango duzue.



Babesleak



Euskara Elkarteak

Argitaratzailea: "...eta kitto!" Euskara Elkarteak, Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar. Tel: 943 206776. **Erredakzio kontseilua:** Maider Aranberri, Iker Aranberri, Koldo Mitxelena eta Eibarko ikastetxeetako ordezkariak. **Administrazioa:** Marisol Uriarte. **Erredakzio, maketazioa eta banaketa:** Ekhi Belar, Ainhoa Luz eta Koldo Mitxelena. **Argazkiak:** ...eta kitto! aldizkariako argazki artxiboa eta Maider Aranberri. **Azaleko Argazkiak:** Koldo Mitxelena. **Tirada:** 2.300 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Oñati). **Copyright-a:** Txikitto! **Lege-gordailua:** SS-1111/96

Eibarko Udalak diruz lagundutako aldizkaria



Txirikorda eta neska



Aspaldi, txirikordak jartze-ko ohitura handia zegoenean, herri batean andere guztiak jartzen zituzten txirikordak euren ilean. Egun batean andere guztiak zeuden erropak garbitzen eta ikusi zuten neska gazte bat eta polita txirikordak oso politak zeramala eta abesten zihoala. Andere guztiak inbidia zeukaten. Txirikorda mordak eskatu zizkieten andere guztiak eta neska polita bakarrik geratu zen txirikorda batekin.

Bapatean negarrez hasi zen eta andere guztiak hasi ziren esaten:

-Zer gertatzen zaizu?
Eta neska politak esan

ziren:

-Txirikorda batekin geratu naitzela.

Eta andere guztiak animatu zuten.

Txirikorda gehiago egiten hasi zen eta azkenean neska politaren urtebetetzea ailegatu zenean andere guztiendako txirikordak egin zituen. Andereek asko eskertu zioten, txirikorda horiekin etxe guztiak apaindu egin zituzten eta zoriontsu bizi izan ziren neska eta txirikordei esker.

LH 3-4 (B EREDUA)

"ZALDI POLIT"
Elena Idigoras



Katalin eta bere aita berria



Behin batean ume bat katalin izenekoa Bilbon bizi zen. Bere aita hil egin zen eta Katalin oso triste esaten:

-Jo, nik aitatxorekin nahi dut.

-Ezin da -esan zion amak.

Katalinek beste aita bat nahi zuenez amak berriro ezkonduko zela esan zion. Eta bere amak beste gizon bat ezgutu zuen eta ezkondu egin ziren eta Katalin oso pozik jarri zen.

LH 1-2 (B EREDUA)

"JUANITA"
Nagore Cabanzon



Martaren istorioa

Marta 9 urteko neska da. Eibarko Arrate inguruko baserri batean bizi da bere gurasoekin, bere bi ahizpekin eta aitona-amonekin. Bera ahizpa ertaina da; bere ahizpa txikiak 3 urte dauzka eta Paula du izena, eta zaharrena 13 urte ditu eta Patricia du izena. Martxoaren 8an da bere urtebetetzea.

Herrira doa eskolara, beti Ipurterre lehiaketan aparte hartu nahi du, baina inoiz ez du parte hartu denbora ez zuelako. Oraingo urtean gaia pentsatzen ari da, baina ez du ideia handirik.

Gaur, larunbata, bere urtebetetzea da, urte honetan txakur bat eskatu du. Marta sukaldera gosaltzeko iritsi denean hau esan diote familiako kideek:

-Zorionak!!!! -esan dio aitak.

-Zorionak!!!! 10 urte dituzu -esan dio amak.

-Eskerrik asko -dio Martak.

Aiton-amonek koro bat eginez hau esan diote:

-Zoooorriioonaak zuurii zoorriioonaak beetii zoorriioonaak Maartaa zoorriioonaak beetii.

-Urte honetan hemen dago guk egindako oparia -esan diote gurasoek-
Eta... ate-



tik sartzen txakur bat ikusi du, dalmata bat hain zuzen ere. Berriz bere aitona-amonek txakurarentzat etxetxo bat, jateko plater antzerako bat eta berarentzat gomazko hezur bat.

-Eskerrik asko -eta txakurra laztantzen hau esan du -Lur jarriko diot izena.

Bere bi ahizpek logelatik etorri dira eta esan diote:

-Zorionak -esan dio Patriciak.

-Zorionak -esan dio Paulak.

Bien artean bi txori erosi diote. Neskari Minnie jarri dio izena eta mutilari, berriz, Mickie.

Orduan esan du Martak:

-Atzo egin nituen etxerako lanak, baina orain Ipurterre ipuin lehiaketarako ipuina egingo dut, ideia bat daukat

eta.

Horrela, idazten hasi da: "Marta eta bere animaliak".

Azkenean astelehena iritsi zen, azterketen emaitza eman eta berak Ipurterre ipuina eman zion andereñoari.

Egunak igaro egin ziren eta azkenean irabazle izena entzun zuen eta gaitzizen hau zuen ipuina entzun zuen: Dalmata. Marta oso pozik jarri zen eta hau esan zuen:

-Andereño ni naz!! Ni naiz!! -hain pozik zegoen negarrez hasi zela eta esan zuen bere barrukalderuntz:

-Hurrengo urtean ere hartuko dut parte.

Horrela, pozik ailegatu zen baserrira kantari eta esan zien familiako kideei:

-Irabazi dut!! Irabazi dut!



LH 5-6 (8 EREKUA)

"LOROA"
Ane Alvarez

Animaliak zaindu



Behin batean ni basoan nenbilen eta urtxintxa bat ikusi nuen zaurituta. Etxera eraman nuen. Amak eta biok zaindu egin genuen sendatu arte eta sendatu zen. Baina, nik ez nuen askatu nahi eta nire amak esan zidan:

-Hobe da aske uztea.

Gero basora joan ginen eta askatu egin genuen. Badakizue! Animaliak aske utzi behar dira. Eta batez ere... Gora natura! Orain **LH 1-2 (B EREDUA)**



"PERIKITO"
Paula Gomez

Xabier eta bere asto Pantxika

Bazen behin ume bat Xabier deitzen zena. Bera oso bihurria eta jostaria zen. Xabier, mendian zegoen baserri batean bizi zenez, asto bat zeukan. Honek Pantxika zuen izena eta oso lodi zegoen. Horregaitik nahiko motel zebilen. Xabierrek, aitzitik, Pantxika azkarrena zela uste zuen. Orduan, lasterketa batera eramatea otu zitzaion. Herrian asto lasterketa asko egiten ziren. Lasterketa bakoi-

tzean hamar astok hartzen zuten parte, baina hiru sari bakarrik banatzen ziren. Lehengoari ehun litro garagardo, bigarrenari hamar txokolate tableta eta, azkenik, hirugarrenari ardo botila bat. Lasterketa eguna iritsi zenean Pantxika urduri jarri zen hainbeste jende ikustean. Lasterketa hastean Pantxika ez zen bere kutxatik irteteko gai izan eta azkena iritsi zen. Xabierrek haserrearen haserrez Pantxika bakarrik utzi zuen eta baserrira joan zen. Pantxika bi astez gogor entrenatu zen lehiaketarako, Pantxikak uste zuelako Xabier lasterketa ikustera joango zela. Astoak bazekien irabaziz gero Xabier eta biak berriro lagun onak egingo

zirela. Beste baserritar batek entrenatzen ikusi zuen eta Xabierren astoa zela konturatu zen. Oso korrikalari ona zela ikustean lasterketan bere izena ematea otu zitzaion. Lasterketa eguna heldu zenean Pantxika oso pozik zegoen, Xabierrekin adiskidetzeko aukera zuelako. Lasterketa hasi eta berehala lortu zuen lehen postua, baina beste bat zetorren atzetik. Atzetik zetorrenak ia ia harrapatu zuen arren, Pantxikak irabazi zuen lasterketa. Berak ez zekien Xabier guztia ikusten zegoenik. Horregaitik, Pantxika Xabier ikusterakoan jausteko zorian egon zen. Xabierrek zorionak eman zizkion eta berarekin itzultzeko eskatu zion. Pantxikak baietz esan zuen eta handik aurrera lasterketa asko irabazi zituen.



"IZURDE"
Susana Zubiaurre

LH 3-4 (D EREDUA)



Amodiozka karta



Bazen behin Ane izeneko neska alai bat, amodiozko ipuinak eta kartak egitea asko gustatzen zitzaiona. Ane, ilegorri kizkurra eta janzkera bitxia zuen neska jostalari bat zen. Asko gustatzen zitzaizkion amodiozko kartak egitea, baina nahiko lotsatia zenez, ez zuen inorentzat egiten, berak egin eta berak gordetzen zituen kolore gorritzko kaxa batean. Neskaxa hau, herritik hurbil zegoen base-ri batean bizi zen eta oso pozik bizi zen bere aita, ama eta animaliekin batera. Ikastolan bazegoen Unax izeneko mutil jator eta guapo bat, gelako neska guztiak txora-txora eginda zituena. Unaxi ez zitzaion gustatzen bere gelakoak txora-txora eginda egotea, horrela, ez ziren berarekin hitz egitera ausartzen eta hori ez zitzaion ezertxo ere gustatzen. Unax, neskekin ez zen oso ondo konpontzen, baina berak esaten zuen Ane berezia zela eta berarekin oso gustora pasatzen zuela txiste txarrak kontatzen. Aneri, Unax bere gelako beste mutilak bezalakoa iruditzen zitzaion.

Aneren gelako neskek bazekiten txutxumutxuetan entzun zutelako, Unax Anetaz gustatzen zela eta jolas garai batean honela esan zion Aneri:


-Ane, entzun dugunez, Unaxek gustoko zaitu –esan zioten Aneri.

-Hori ezinezkoa da! Ez da posible! –esan zuen Anek harrিতa, baina pozik ere.

-Guk uste dugu, zure amodiozko kartaren bat egin beharko zeniola, oso pozik jarriko da!

-Bai! Ordua da nire lotsei aurre egiteko –esan zuen Anek ausardia erakutsiz.

Hurrengo egunean, Anek prest zuen karta bere motxila txiki txukunean eta Unaxi amodiozko karta ematera zihoanean, Karlak (Aneren etsai handienetarikoa batek, bera baino urtebete nagusiagoa, Unax



LH 5-6 (D EREDA)

"IFI"
Izaro Fernandez



eskuratzeko edozer egingo zuenak) eskutatik kendu zion eta korrika joan zen zuzendaritzara (zuzendaria zegoela aprobetxatuz), megafonoetatik esan eta ikastetxeko gela guztietatik entzun zuen Anek, Unaxi egindako karta. Ane negarrez hasi zen eta etxera ihes egin zuen. Bere lagunak segi zioten, baina Ane bizkorra eta arina ere bazen eta bide erdian lagunak ikastetxera bueltatu ziren. Anek etxean arratsalde osoa lotsaz eta negarrez pasa zuen, karta eman behar ez ziola pentsatzen eta akats izugarria izan zela amodiozko karta hori Unaxi emateko intentzioak egitea, azkenean dena alferrikakoa zela pentsatu zuen. Gauean Messengerretik hitz egiten ari zela, Unaxek karta asko gustatu zitzaizola esan zion, eta baita Karla asko haserretu eta amorratu egin zela ere. Karlak karta irakurri zuenean aho zabalik gelditu zen, hasieran ez irakurtzekotan egon zen, baina Aneri izorratzea-gaitik irakurri egin zuen. Anek, Unaxi karta

hurrengoan berak idazteko esan zion eta hobe zela postaz bidaltzea, horrela ez zuen inork irakurriko, berak eta Unaxek esan ezik.

Hurrengo egunean, Unaxek Aneri ea karta heldu zitzaion galdetu zion eta Anek ezetz erantzun zion. Unax harrিতuta gelditu zen, hitzik gabe, ez zekien zer esan. Jolas garaian, lagun guztiei galdetu zioten ea norbaitek ikusi zuen bere etxeko postontzian amodiozko kartaren bat deskuiduan eta denek ezetz erantzun zuten. Azkenean, postariari galdetzea erabaki zuten eta postariak, hain polita zenez, bere emazteari ematea pentsatu eta eman egin zion. Unax eta Ane barre algaraka hasi ziren eta lagunak bakarrik izatea erabaki zuten, oraindik gazteak zirelako.

Azkenean, Unax eta Anek betiko bizitza barregarri eta jostagarriarekin jarraitu zuten, hau da, 11 urteko neska-mutiko batzuen bezalakoa.

Itxaropenaren tren

PIPI, PIPI, PIPI!

Iratzargailua zen, astelehena berriro. Nora ohetik jaiki eta komunera joan zen. Denbora luzea egin zuen ispilura begira. Ez zitzaion bere burua gustatzen. Ile kizkur beltza zuen eta begi berde politak. 14 urteko neska baten itxura zuen, bere lagun guztien antzekoa. Jantzi, gosalduta eta eskolara abiatu zen, burmuina oraindik nahiko lokartuta zeukala.

-Kaixo! Ze-nolako lo aurpegia daukazun, neska! Esmatu zaitzez!

Pablo zen, Noraren gustuko mutila. Gela berean ibili ziren txikitatik eta betidanik lagunak ziren.

-Zer? -ez zion kasu izpirik ere egin, bere begi urdin-urdinei begira egon baitzen. Hain ziren politak!

-Ikusten? Lo zaude! Nire urtebetetze festara gonbidatu nahi zintudan, baina antza denez esaten dudana ez zaizu askorik inporta -esan zuen triste plantak eginez.

-Bai! Barkatu, lo nengoen. Noiz da zure

festa?


-Nahi duzunean esnatzen zara, e? Larunbat honetan da. Etorriko zara, ezta? -hau esatearekin batera bere gonbidapena eman zion.

-Joango ez naiz, ba! Elene ere gonbidatu duzu?

-Bai, 3. maila osoa. Emango diozu gonbidapena nire partez?

Erantzunik itxaron gabe, korrika alde egin zuen beste gelakide bati gonbidapena ematera.

Elene, Noraren lagunik onena zen. Txikitatik ezagutzen zuten elkar, txikitatik lagun minak ziren. Honek ile marroi luze-luzea zuen, oso ondo zaindua, eta kolore bereko begi handiak. Eskolarantza zihoala, gonbidapena zabaltzea pentsatu zuen Norak: "Kaixo, Nora! Jakingo duzunez, abenduaren 15ean, larunbata, nire urtebetetze eguna da eta ospatu nahi dut. Hortaz, nire etxean festa antolatu dut. Gonbidatuta zaude. Etorri, mesedez! Pablo". Elenerenean ere berdina ipintzen zuen, gonbi-



datuaren izena izan ezik, jakina!

Baina bi gonbidapenez aparte, beste orri bat ikusi zuen Norak. Abesti baten zati bat ematen zuen, seguruenik Pablok nahigabe emandakoa. Presaka idatzita zegoela zirudien eta ez zen abesti osoa ondo irakurtzen. Hala ere, hainbat zati haren letrarik onenaz idatzita zedula ematen zuen, Pablok gustokoen zituen zatiak izango zirela pentsatu zuen Norak. Jakinmin handiz, irakur zitekeena irakurtzen hasi zen: [...] Irribarre bat margotuaz[...] bere soineko ederrenaz [...] Denek galdetzen zioten, zergaitik zoaz? [...] Agur zioen, ez zela berriz itzuliko [...] Zer eskutatzen zuen begi ilunetan? [...] Itxaropenaren trenaren zain [...] Baina gaur ez da itzuli [...]. Norak entzuna zeukan abestia eta bazekien zeren gainekoa zen: Neska bat egunero joaten zen geltokira, itxaropenaren trenaren noiz etorriko zain. Denek galdetzen zioten ea nora zihoan eta berak ez zela inoiz itzuliko erantzuten zien. Hala ere, egunero bueltatzen zen. Baina egun batean, ez zen, ez, itzuli. Norari abesti ona iruditzen zitzaion eta itxaropena izanda lortzen dela nahi edo desio duzun hori erakusteko modu polita ere bai. Hori pentsatzen zebilela, eskola-

ra iritsi zen. Elene ikusi eta Pablaren gonbidapena eman zion; honek bera ere joango zela esan zuen.

Handik gutxira, Pablo azaldu zen.

-Hau zurea dela uste dut –esan zion Norak Pablari, abestiaren orria erakutsiz.

-Zuk al zenuen? Ez dakizu zenbat denbora egon naizen non utzi ote dudan pentsatzen. Eskerrik asko bueltatzeagaitik. Nire abestirik gogokoena da. Gaizki edo triste nagoenean asko laguntzen dit. Politia, ezta?

-Bai! Niri ere asko gustatzen zait!

Eguna gainerantzeko astelehenak bezain aspergarria izan zen eta Pablari begira pasatu zituen ordu gehienak. Dena betiko martxan joan zen gava arte, ilundu zuenean Nora mesengerrean konektatu zen arte.


-Kaixo Elene!

-Kaixo Nora! Ba al dakizu azken berria?

-Ez. Zer, ba?

-Pablok istripu bat izan du eta koman sartu da. Skatearekin zebilen lagunekin, jausi eta buruan kolpe izugarria hartu omen du.

Nora zuri-zuri, zurbil, geratu zen, zer egin ez zekiela. Negarrez hasi zen. Inoiz ez zen horrela sentitu. Berak gehien maite zuen per-



IPURTERRE IPUIN LEHIAKETA

tsona agian ez zuela berriro ikusiko pentsatzeak, oso sentrazio mingarria eragiten zion. Pablok goizean nahigabe emandako abestia ipini zuen, 'Trenaren zain'. Berriro eman zion negarrari. Gau osoa pasatu zuen horrela, triste eta batere logurarik gabe, begiak zabalik, begiak lausotuta zituela. Hurrengo egunean, ospitalera joango zela erabaki zuen. Ospitalera iritsi zenean, Pabloren lagun mordoa aurkitu zituen, bere gurasoek gain.

-Kaixo Nora -esan zion Anak, Pabloren amak, ahots tristearekin-. Zu bakarrik etorri zara?

-Bai. Zer moduz dago Pablo? Sendatuko al da?

Pabloren ama negarrez hasi zen.

-Inork ere ez daki zer gertatuko zaion -esan zion lagun batek.

Nora etxera bueltatu zen, lur jota. Ez zekien zer egin. Denbora guztian zeukan Ken Zazpiren 'Trenaren zain' abestia ipinita eta zegoeneko buruz zekien. "Itxaropenaren trenaren zain...". Zertxobait lasaitu zenean etxerako lanak egiten saiatu zen, baina, alperrik, ezin zen kontzentratu. Matematikako problema bat ebaztear zegoela, telefonoak jo zuen.

-Bai, esan?

-Nora! Eskerrak etxean zauden! Ana naiz,

Pabloren ama. Esnatu egin da! Beno, egia esan momentu honetan berriro ere lehen bezala dago, baina oraingoz arriskutik kanpo dagoe-la, behintzat, esan du medikuak! Abisatzeko deitu dizut, baina, baita mesede bat eskatzeko ere. Medikuak beste gela batera zeramanean esaldi antzeko bat esan du eta inork ez du ulertzen zer esan nahi duen: Itxaropenaren trenaren zain. Medikuek ea zer esan nahi zuen galdetu diotenean zure izena esan du. Argibiderik-edo badaukazu? Horrela bada etorri mesedez!

-Bai! Oraitxe noa!

Hori esanarekin batera telefonoa moztu zuen. Oso pozik sentitzen zen. Alde batetik, Pablo arriskutik kanpo zegoen eta bestetik, bere izena esan zuen. Beraz, gogoratzen zen! Gainera ziur zegoen itxaropenaren trenaren zain esaldiak zer esan nahi zuen. Trenaren zain, bere abestiрик gogokoena entzun nahi zuen. Gainera, esana zion gaizki sentitzen zenean kontsolagarri, lagungarri zuela. Diskoa hartu eta ziztu bizian abiatu zen ospitalera ahalik eta azkarren iristeko.

-Hemen nago! -lortu zuen esatea Norak arnasestuka- hau da Pablok nahi duena! Gehien gustatzen zaion abestia entzun, hobeto sentitzeko!



Bere gurasoei aurreko egunean nahi gabe emandako orriarena kontatu zien, eta havek ulertu ere. baina medikuek ez zioten musika ipintzen uzten. "Alboko geletan daudenak molestatzeko besterik ez du balio izango", zioten. Baina Norak bazekien abestia beharrezkoa, ezinbesteko zuela. Ez zekien zergaitik, baina halaxe zen. -Gero eta okerrago dago -esan zuen medikuak-. Norbait sartuko al da berarekin hitz egitera? Agian, on egingo dio.

-Sartu niteke ni? -Norari ideia bat bururatu zitzaion.

-Jakina!

Gela txuri batera eraman zuten. Bertan zegoen Pablo, ohe batean, gorputzean kable pila batekin, mugitzen ez zela. Lo zegoela zirudien, ume txiki bat bezala. Minutu batzuk berari begira pasatu ondoren (hain ederra zen!) bertara zertarako sartu zen gogoratu zuen eta abesten hasi zen: "Zer ezkutatzen zuen begi ilunetan, zer kantatzen zion haizeari, izenik gabeko 1000 musu gordetzen zituen, itxaropenaren trenaren zain...". Ahotsa polita, goxo irten zitzaion, tristea, baina ederra.

-Nora... Eskerrik asko... Maite zaitut.

Pablo zen! Esna zegoen! Eta maite zuela esan zion!

-Nik ere... -esaldia bukatu baino lehen gelara mediku bat sartu zen.

-Nora, irten zaitetz, mesedez. Kanpoko makinak zoratu egin dira! Pablo esnatu dela markatzen dute!

-Ez dira zoratu, esna nago! -esan zuen Pablok ia entzun ezin zitekeen ahots batez.

Bat-batean bere gurasoak, eta havekin batera jende piloak, sartu ziren gelara ea zen gertatzen zen galdezka. Handik 5 minututara, Nora etxerako bidean zihoan. "Joan daitezela familiakoak ez diren guztiak, mesedez", esan zuen medikuak. Handik bota zuten bera ere, Pablo esnatu zuena bera izanagaitik ere! baina ez zen haserretu. Norak Pablo maite zuen eta Pablok Nora. Bere zoriona ez zion mediku kas-kar batek hain erraz kenduko. Korrika hasi eta lau haizeetara oihukatzeke gogoak zuen: "Pablok maite nau!".



Bi aste beranduago, Nora Elenerekin hitz egiten ari zela, norbaitek begiak estali zizkion.

-Nor naiz? -galdetu zuen norbaitek ahots arraroa apropos ipinita nor zen ez asmatzeko.

-Pablo? Buelta eman eta hala zen. Han zegoen, bere betiko Pablo bere begi urdin-urdinekin. Bi aste ziren ez zuela ikusten eta gogo handia zuen. Elene beste lagun batzuegana joan zen Pablo eta Nora baka-riek egon ahal izateko.

-Bai! Ni neu! Jada ondo nago eta ez naiz berriro ospitale zatar hartara bueltatu behar. Eskerrik asko nigaitik egin zenuen guztiagaitik. Oso ondo abesten duzu, e?

-Saiatzen naiz! -esan zuen Norak zeukan lotsa tapatu nahian-. Ez genuen elkarrizketa bukatu...

-Badakit. Uste dut zuk lagun modura ikusten nauzula eta ulertzen dut, baina... Nik zerbait gehiago nahi dut...

-Maite zaitut -bota zion Norak.

Eta musu eman zioten elkarri. Musu lotsati, baina ahaztezi-na... hilezkorra.



DBH 3-4 (D EREDUA)

"ILARGI"
Izar Baglietto

Olatuen esanahia eta kaioen begiradak...

Eguna daramat kai-mutur honetan eserita: Egunasentiaren lehen eguzki izpiak nire aurpegia laztantzen somatu dut goizaldean; haren beroa eguerdi aldean eta urruntzen doan haina hotza sentitzen ari naiz. Gainera, gaur dauden olatu ikaragarrietan jo duen argiak itsasoa bero-bero utzi du, eta orain, ordea, hoztuta geratu da, eta indarrrik gabe. Nire bihotzaren pare zu joan zinenetik.

Gogoratzen al duzu, banku txiki honetan eman genituen orduak? Zuhaitz polit honen kerizpetan egoten ginen, ixiltasunean, elkarren ondoan, olatuei begira. Kaioen begiradak ziren gure ixiltasunak igortzen zuten maitasunaren testigu.

Banuen amets baten esanahia eta arrazoa bilatzeko gogoak eta beharrak eta pixkanaka pixkanaka olatuek eta hodeiek erantzuna ematen ziguten. Gezi hark zer esan nahi zuen? Gure bidean aurkituko ditugun seinaleak ziren akaso? Aurrerantzean jakin nuen, gezi haren arrazoa, zena zela bost urteen zehar elkarren artean eraiki genituen ametsak hormaren kontra jo zutela burua eta gure bideak nahasi eta beste alde batera bananduko zirela zioela amets hark.

Atzokoaz damutzen eta aurrera jo ezinean nabil. Baina ez dago irtenbide magikorik, beraz hementxe itxarongo zaitut eta beti egongo naiz zurekin. Oraintxe bertan, ixiltasuna dut etsai, zure arnasotsa ez nagoelako entzuten ea apurtu zenuen bihotzaren zatitxoak berriz bat egiten dute eta hutsartetik indarrak hartuz zu berriz maitatzeko ahaleginak egiten dituzte.

Haserreak hartu zintuen eta ez zenuen ezertan pentsatu. Ingalaterran eskaini zizu-

ten lanpostuari bueltak ematen zeunden egun osoan, eta nirekin hodeiak begiratze-ko denborarik ez, eta amets misterioitsu horri esanahirik atera gabe geuden... Laurak ziren iada eta zure telefono deiaren zain nengoen oraindik. Nik deitzea erabaki nuen, eta itzalita zeneukala ohartzekoan, larritzen hasi nintzen. Bi ordu luze eman nituen itxaroten, betiko lekuan betikoz hitz egiteko. Zirenak ziren, eta haserreturik jarraitzen genuen, bakoitza berera eta bestearen bihotza jipoitzen nahita. Egoera hark erotu egiten ninduen, une zailak eta garai txarrak zirelako, eta bost urte luze haietan zehar, horrelakorik ez genuelako bizi, eta orduan, gerta zitekeenaren beldurretan nengoen.

Gauetan lo egin ezinean, eta barnean nuen haserre itzali nahian nengoen, baina





badakizu nolakoa naizen, eta nire duintasunaren morroia bihurtzen naiz batzuetan, eta zu nire atzetik etorri behar zinela esaten nion buruari, hamabost urteko mutil eta neska batzuen pare. Horrelako txorakerietan murgilduta denbora pasa zen eta nitaz urruntzen hasi zinen.

Egoera hortaz nazkatuta, amorruz beteta, zure bila jo nuen. Zure etxera joan nintzen. Atea hamaika aldiz jo arren, ez zuen inork erantzuten eta eskaileretan esertzea erabaki nuen. Hara non agertu zen zure bizilagun gazte eta panpoxa bat. Miren deitzen zen, ezta? Bai, hori da. Bere hitzek erabat harrিতuta utzi ninduen:

-Aizu, zu Itsaso zara, ezta? Manexen neskalaguna?

-Bai. Apropos, badakizu non dagoen?

-Nor, Manex? Bai bostak inguruan berekin topo egin dut. Maleta askorekin zegoen igogailuan, eta bidaiaria bat egingo zuela esan dit, denbora luzerako. Zurekin zihoa-

la pentsatzen nuen, eta ez diot ezer gehiago galdetu. Zerbait gertatzen al da?

IXILTASUN DESEROSO BAT SORTU ZEN ETA EZ NEKIEN ZER ERANTZUN.

-Joan beharra daukat, Miren. Aio.

Korriketan hasi nintzen noraezean. Nora joan behar nuen? Burua hoztu eta momentu batean gelditu nintzen, kai-muturrean, oraintxe bertan nagoen toki berberan. Buruari bueltak emateari ekin nion. Kaio bat gerturatu zitzaidan eta haren begietara begiratzean jaso nuen erantzuna. Lanpostu kakontzi hark zuen errua! 'Flash' bat izan zuen. Burutik pasa zitzaidan lantegian eman zizuten ontziratze txartela, azkenean iritiz aldatzen bazenuen eta Ingalaterrara joateko aukerari baietza ematen bazenion eman zizuten txartel hura. Hegaldiaren ordua: zortziak eta bost, ontziratze ordua: zortzirik hogeit gutxi. Erlojua begiratu nuen ziztu bizian: zazpirak! Taxi baten bila joan nintzen. Gudanio kalean aurkitu nuen eta



aireportura ahal zuen azkarren eramateko esan nion gidariari. Halaxe egin zuen baina trafikoarekin ez genuen sorte nahikoa eduki, beraz, zazpi eta erdietan ailegatu nintzen aireportura. Korriketan joan nintzen, eta paneletan oinarriturik, bosgarren gelara eraman ninduten.

Han ikusi nuen, leihotik begira. Haren atzean jarri nintzen eta ez tul txiki bat egin nuen.

-Manex... -xuxurlatu nuen.

-Itsaso, maitea -esan zuen oso burumakur.

-Begiratu iezadazu begietara, serio Manex, ez gara umetxo txikiak -esan nion seriotasun osoz.

-Biontzako hoberena da maitea, sinistu iezadazu. Etorkizunak banandu egin gaitu eta gure haserreak erraztu dio bidea... Bihotza, nik mate zai... -ez zuen bukatu.

-Azken deia B4458 hegaldiarentzat Londres helmugarekin -esan zuten megafoniatik.

Malkoek nire begiak hartu zituzten eta

ezin nuen ene laztanak nola alde egiten zuen ikusi, beraz, handik korriketan abiatu naiz gure txokora, kai-mutur honek duen zuhaitzaren magaletara, negar egitera eta olatuei zergaitia galdetzera. Kaio bat hurbildu zait ni kontsolatzeko-edo. Negarrari ekin diot eta ez naiz gelditu. Hortaz, bi ordu luze igaro dira eta oraindik jarraitzen dut negarrez. Bi ordu hauetan, patrikan nuen koadernotxo batean Manexenganako ditudan sentimendu guztiak eta nire bihotzaren egoera idatzi ditut eta zure bihotzera zuzenduta dagoen gutun honekin zer egin ez dakit. Orduan botila berdexka bat ikusi dut hemen lurreen, tapoi eta guzti. Ilemototsetik gomatxoa hartu eta orriak lotu egin ditut. Botilatxoan sartzen hari nintzela... zera entzun dut:

-Itsaso: polita, urdina, lasaia eta goxoa. Izena paregabe datorkizu...


Buelta erdia eman dut. Manex da. Esku artean lore bat du. Ez dakit zer esan, eta isilik geratzea erabaki dut: isiltasuna, azaldu ezinaren erantzuna delako...

Nire aurrean jarri da eta altxatu egin nau. Begietara begira ondorengo hau esan dit:

-Polita, barkaidazu. Ezer da gure artekoa baino garrantzitsuagoa eta tontoaren pare jokatu dut. Besarka nazazu eta ez zaitez ikaratu. Barkatzen banauzu elkarrekin olatuak begiratzen emango dut gava, zure ondoan. Barkatzen ez banauzu, ulertuko zaitut eta izkinan dagoen lorategira joango naiz lapurtu dudan loretxo hau bueltatzera. Zuk esango didazu...

Besarkatu egin ginen ordu luze baten zehar. Malkoak baztertu eta gero, kai mutur-muturrean jarri naiz, eta botila berdea itsasora bota egin dut, gutuna eta guzti.

Manexek begiratu egin nau ea botila hura nondik atera nuen edo esanez. Belarrietara xuxurlatu diot: esku hutsen mezua, besterik ez...



Lagunak ginenean

Begiak itxi eta hura datorkit gogora; burutik ezabatu ezin dudan irudi ederra, aldi berean erakarri eta samindu egiten nauena. Begi berde sakonak, ezagunak eta ezezagunak egiten zitzaizkidanak...

Ez dakit nire irudipena zen edo ez, baina neska guztiak txora-txora uzten zituen udako oporretatik itzuli zenetik. Joan den urtean ez zuen halako arrakastarik nesken artean, oraindik haur errugabe baten aurpegia zuen eta. Aurten bestelakoa da: ikaragarri hazita dago, aurpegiko ezaugarriak gizonbata dauzka, gizonen janzkera eta ibiltzeko erak hartu ditu, baina lehengo pailazoa izaten jarraitzen du. Ez diot horrela modu txarrean deitzen, baizik eta denoi barre eginarazten digulako. Lehengoari jarraituz: BERA ez zen ezertaz konturatzen (eskerrak!) eta beti bezala jotzen zuen niregana, BERE lagun mina bezala; beno, behintzat ikasturte hasieran. Txikitatik ezagutzen dugu elkar, eskolan hasi ginenetik. Gainera, nire auzokidea ere bada eta leku guztietara elkarrekin joaten gara. Edozein sekretu kontatzen genion batak besteari eta askotan entzun izan ditugu besteek inbidiaz galdetzen zizkiguten txorakeriak: noiz ezkonduko garen eta horrelakoak, nahiz eta bazekiten nik, jada, baneukala beste mutil-lagun bat. Pasa diren urteetan ez digu axola izan, bain aurten ezingo nuen jasan lotsaren lotsaz. Beti esan diogu elkarri bekaizti hutsak zirela eta inbidia zigutela gure adiskidetasunagaitik; baina aurten desberdina izaten hasia zen, berarekin nengonean gauza ezberdin bat sentitzen hasia nintzen eta. Arazo hori dirudiena baino larriagoa da, izan ere, ez nuen gure arteko txikitatiko adiskidetasun eta ulergarritasun hori pikutara bidaltzerik nahi, baina ezinezkoa egiten zitzaidan berarekin lehen bezala egotea, eta ez nekien zergaitik.

Bat-batekoa izan zen: hiru hilabete; hiru hilabete egin genituen elkarrengandik urrun, beste-



rik ez. Nik amonaren herrian igaro nituen oporrak eta berak bere amaren herrian, Valentzia aldean. SMSak bidali genizkion elkarri uda osoan zehar, astero, gure abenturak eta asteko gertakizunik garrantzitsuenak kontatzeko, baina hiru hilabete madarikatu horiek nahikoa izan ziren urte askotako gure arteko erlazio paregabea balantzaka uzteko. Hiru hilabete, hiru sorgin bezalakoak. Bakoitzak hogeita hamarren bat hitza esan zituen eta sorginkeriak eragina izan zuen, nigan behintzat. Hitz bakoitzak milimetro bat haztea eragin zion, bere lehengo gorputzeko zentimetro bakoitza aldarazi zuen. Bigarren sorginak ni ere aldarazi ninduen, nerabezaroan murgildu ninduen, pentsamenduak aldarazi zizkidan. Hirugarren sorginak..., hirugarren orginak... honek ez nekien zer egin zuen, baina sorginkeria bat ziurrenik. Sorgin madarikatuok! Ez zituzten gauzak zeuden bezala utzi, ezta? Nire bizitza guztiz aldatu behar zuten?

Eskolara itzultzeko ordua iritsi zen eta Ander nire bila etorri zen etxera: "Jesus! Nor zara zu? Ander? Izugarri aldatu zara!". "Zuk uste?

IPURTERRE IPUIN LEHIAKETA

Egunon Maite! Miren etxean al dago?". "Jakina! Miren, Ander etorri da zure bila!". "Banoa, ama! Kolonia botatzen ari naiz!". "Nolakoak garen emakumeok, ezta Ander?". "Ama! Jesus! (Harritu egin nintzen. Gorritu ere bai, aurpegia sutan sentitu nuen eta). Ander, zu al zara? Besteren bat dirudizu". Hori guztia totelka esan nuen eta mementu batez ama barrezka ari zela edo ahoan irribarre maltzurra zuela iruditu zitzaidan. "Zeu ere aldatu zara, Miren. Jada ez zara lehengo kakana-rrua". Txantxetan ari da Ander. Barre egin nuen urduri samar. "Oso barregarria Ander! Ja, ja! Begira nola egiten dudan barre! Beno, joan egin beharko dugu, bada". Berrito ni tote- len antzera. "Bai, berandutzen ari zaizue". Amak irribarre maltzurra zuen ezpainenat margotua eta atea ixtera joan zenean, berriro begiratu nionean, keinu egin zidan. Pentsatzen hasita, hori egingo zuen hirugarren sorginak: ama nire saltsetan sarrarazi.

Eskolarako bidean lagun asko aurkitu gini- tuen. Ez naiz ikastetxetik oso urrun bizi; hori dela eta, ez da bost minutukoa ere etxetik esko- lara iristearena. Elkarriz udako ipuinak konta- tzen aritu ginen ibiltzeari utzi gabe eta noizean behin (egia esan, sei aldiz minutuko gutxienez) barre algaraka. Jende guztia guri begira-begi-

ra geratzen zen; beno, hobeto esanda, BERARI begira. Neska guztiak adurra zeriela utzi geni- tuen; beno, berak. Baina Ander ez zirudien konturatzen zenik. Oso erakargarria dela kon- tatu egingo nioke, zalantzarik gabe, baina orduan desberdina zen; hiru hilabete pasa ziren eta hiru sorginek euren madarikazioa jaurti zuten. Ez zegoen atzera egiterik. Jada, ezin genuen iraganera bidaiatu eta lehen bezala ume errugabea izan. Jada, ez gara ume txikiak; hazi egin gara.

Ingelesa, lengoaia eta txirrina: PIIIIII! Jolasordua. Liburuak jaso eta ziztu bizian irten ginen gelatik. Beti bezala, jolastokiko gure txo- kora abiatu ginen. Bertan edozer gauzari buruz hitz giten dugu. Momentu hartan, ordea, oso zaila egin zitzaidan Anderrekin hitz egitea. Edozein momentutan bizkarrean jo edo bultza egiten zidan (maitekiro, noski) eta horrek gorri- tu egiten ninduen. Eskerrak konturatu ez zen! (Edo hori uste dut behintzat, ez zidan ezer esan eta). Normalean gu bakarrik egoten ginen ber- tan; jende guztia talde handietan biltzen zen gu ezik. Mutilak mutilekin jartzen ziren eta neskak neskekin, eta talde batekoek bestekoei buruz hitz egiten zute eta alderantziz: "Begiratu horko horren ipurdiari", "beste hori ere jateko modu- koa dago", "begira nolako tximaluzeak dituen



horrek"... Baina aurten desberdina izaten hasia zen: jende guztia gure inguruan biltzen zen; neskak gure inguruan zebiltzan (Inoiz ez bezala) eta mutilak nesken atzetik zihoazen, nola ez. Anderen ustez, aurten ikastetxera etorri dire ikasle berriek leku berria aurkitu utenez, gure gelakoek libre zegoen alderantz etorri behar izan zutelako zeuden gure inguruan. Nire ustez, berriz, erantzuna Ander zen. Neska guztiak zoroen antzera zebiltzan Anderri begira-begira eta. Bat-batean, barre algarak entzun ziren eta gelako neska ospetsuena, Ane, guregana hubildu zen. Anderren pare-parean jarri eta harro-harro zera galdetu zion: "Ander, nahi al duzu gero nirekin ibilalditxoren bat egitea?". "Ez, sentitzen dut Ane, baina Mirenekin itzuliko naiz etxera; izan ere, etxerako lan batzuk egiteko berarekin geratu naiz, kurtsoa hasi besterik ez da egin eta, jada, ez dut ezer ulertzen eta. Hurrengoan izango da". Anek, guztiz lotsatuta, ez ziola axola erantzun zion eta bira eman eta bere lagun zintzurleunen atzean ezkutatu zen. Hori bai, bira eman aurretik ikaragarritzko amorru aurpegiak begiratu zidan. "Ondo!", esan nion neure buruari; ez nuen hori pentsatzerik nahi, baina jeloskor nengoela uste nuen. Aurreko urtean, neskala-gun bat bilatu nahi izan nion Anderri eta berak ez zuen nahi izan. Aurten, aldiz, ez nuen nahi izan Ander (NIRE lagun mina) gelako neskarik famatuarekin paseatzerik ere. "Jeloskor! NI ez nago jeloskor! Nola egongo naiz ba ni jeloskor? Ezta pentsatu ere!". Neure burua kontra-koaz bairatu nahi izan nuen arren, ezin nien burutik kendu Anderren irribarre misteriotsu 'berria'.

Gizarte: ordu osoa Anderri begira igaro nuen eta ez nuen andereinoak esandaokaren ideia ñimiñorik ere. Ane ere begira-begira geratu zitzaiola ikusi nuen, beraz, ez nintzen etxerako lanak egingo ez nuen bakarria izango. "Miren! Andereñoa hitz egiten ari da!!" Esan zidan Anderrek berari begira harrapatu ninduenean. A zelako lotsa! Beti izaten da bera bere munduan murgildurik dabilena.

Informatika: binaka egiten dugu lan eta, nola



ez, ni beraren ondoan eseri nintzen nik ez baitut tik ere ulertzen informatikari buruz. Ander, berriz, gelako onena da ikasgai honetan.

Natur Zientziak: neure buruari esan nion nik, jada, badudala mutil-lagun bat, nahiz eta eskola honetakoa ez izan eta irakasleak emandako azalpenak entzuteko.

Gorputz Heziketa: berrogei minutu horiek azkar igaro zitzaizkidan, azkenak ziren eta.

Ander eta biok etxerantz joan ginen, bazkaldu eta etxerako lanak elkarrekin egiteko. Etxerako lanak bukatu ostean, ni neure etxera joan, afaldu eta ohera sartu nintzen.

Azkenengo bi hilabeteak antzera igaro dira: Gizarte ozta-ozta gairiditu dut bost batekin (ia negar ere egin nuen eta jendea asko harritu zen, ni gelako emaitza onenak ateratzen dituztenetarikoa naiz eta) eta Anek Ander liluratze-ko ahaleginetan porrot egin du hainbat aldiz. Gauza batek txunditzen ninduen; hala ere, Anderrek ez zirudien lehengo azkenaldian;



gelako mutilekin gehiago ibiltzen hasi zen eta ez zuen nirekin lehen bezalako traturik. Gerora jakin nuen zergaitik.

Atzo arratsaldean, azkenengoz ikusi nuenean izututa geratu nintzen Anderrekin: odola zerion ahotik, prakak urratuta eta lokatzez zikinduta zeuzkan barrenean eta eskuak gorrituta. Ilea guztiz nahasia eta zikina zeraman eta begirada eroria... Ea zer zuen galdetu nion. Berak ez zidan ezer erantzun; bira eman eta

nigandik urrundu zen. Ez nuen bere jarrera ulertzen; izan ere, nire lagun mina da. Mukizapia patrikatik atera eta berari eskumako besoa hartuz, esku barruan utzi nion. Mukizapia iturri batean busti eta aurpegia garbitu zuen. Eskerrak iruditu zitzaizkidan murmuriatu zizkidan eta ez genion gehiago elkarri fisik ere esan ordutik aurrera. Etxera lagundu nion berarenaren ondoan dagoen atetik sartu aurretik. Agurtu ere ez ninduen egin eta atea itxi zuenean, inuzente bat geldituko litzatekeen moduan geratu nintzen ni ere: atea itxita eta ni ateari begira, eskuak poltsikoetan sartuta, beste zereginik gabe. Beraz, bost minutu inguruan horrela egon ondoren, nire egoera penagarriaz jabetu nintzen eta alboko etxeko atetik sartu nintzen.

Gauean, Anderren ahizpa nagusia etorri zen etxera, mukizapi garbia eskuan zuela eta orduan galdetu nion nik Anderri gertatukoari buruz. Itsasok, Anderren ahizpak, kontatuko zidana gogor samarra izango zela esan zidan eta ohe gainean esertzeko eskatu zidan. 'Shock' egoerari aurre egin ahal izateko negarrari ekin nion eta Itsasok bakarrik utzi ninduen. Orain bakit bizitzako une batzuk bakarrik igarotzekoak direla, pentsatzem, erantzunak bilatzen. Gauza batzuk ezin dira hitzez adierazi, baina ez dut behar hitzik, sentimenduak eta gertakizunak nahikoa dira pentsamenduak argi eta garbi sailkatzeko. Azkenean lortu dut nire bihotzak esaten zidana nire buruak ulertzea. Nahikoa izan dira bi matraileko eta musu bat dena argitzeko: matrailekoa, Mikeli (nire mutil ohirai) eta Anderri niregaitik borrokatze-gaitik eta musua...

-Miren, nola jakin duzu borrokarena?

-Hemendik aurrera, nire mutila izan behar baduzu, hobe duzu galdera gutxiago egiten baduzu, Ander.

Biok egin dugu barre Anderren irribarre misteriotsua nire ahoan sentitzean, gorroto-oihu bat entzun dugulako: "Kaka zaharra".

-Kaixo, Ane! Lagunduko GAITUZU ibilaldixoren bat ematera?



DBH 3-4 (B EREDUA)

"LAURA"
Idoia Badiola

Urrun bere bila

Kaixo ama! -esan zuten Ainararen seme-alabek.

-Kaixo umeak, zer moduz eskolan? Ez duzue etxeko lanik? -galdetu zuen Ainarak.

-Ez, gaur ez dugu etxeko lanik, beraz, zergaitik ez diguzu istorio bat kontatzen? -esan zuen Gorkak.

-Eta ze istorio nahi duzue nik kontatzea?

-Nola ezagutu zineten aita eta zu istorio polita izan daiteke -esan zuen Ainhoak.

-Hori kontatzea nahi baduzue eseri zaitezte, istorio luzea da eta.

“Udaro nire amak errusiar bat ekartzen zuen etxera. Ivan zuen izena mutikoak. Ni baino bi urte gehiago izango zituen gutxi gora behera eta Errusiako herri txiki batean bizi zen bere amona zahar eta gaixotuarekin.”

Gorkak amaren azalpena moztu zuen hau esanez:

-Baina honek ez du zer ikusirik esan dizugun istorioarekin?

-Zu isildu eta entzun -esan zuen amak.

“Nik bost urte nituen gutxi gora behera berak etortzeari laga zionean, baina gutunak bidaltzen genizkion elkarri. Azkenean hori ere amaitu eta ez ginen komunikatzen bata bestarekin.

Hogei eta lau urte nituenean nire ama hil egin zen eta nire amaren izebaren etxera joan nintzen bizitzera. Izebak ni zaintzeko, nire amaren etxe abandonatua salmentan utzi zuen eta hor hasten da benetako istorioa.

Amaren etxera joan nintzen gauza guztiak hartzera. Goiko solairura igo nintzen, dena kaxaz beteta zegoen, baina han zegoen batek atentzioa deitu zidan. Ivan jartzen zuen. Kaxa hartu eta izebaren etxera joan nintzen. Ireki nuen, argazki pila bat zegoen kaxan eta baita gutunak ere. Gutun batzuk irakurri ondoren gogoratu nintzen Ivanek eta



nola udaro etortzen zen gure etxera eta zelan jolasten nuen berarekin. Orduan galdera bat egin nion nire buruari. Zergaitik utziko zion Ivanek gure etxera etortzeari? Gogoratzen nuen nola gutun asko bidaltzen genizkion elkarri nik 7 edo 8 urte nituen arte, gutxi gora behera. Zergaitik utziko genion eskutitzak bidaltzeari? Orduak pasa eta pasa eta galdera mordo pasatzen zitzaizkidan burutik, bere bila joateko gogo piztu zitzaidan, baina ez nuen dirurik Errusiaraino joateko eta gutxiago han hilabete bat edo gehiago geratzeko. Zer egin orduan?

Nire izebari zerbait esan nion konbentzitzeko, baina horretaz hitz egiten hasten nintzen bakoitzean zoratuta nengoen galdetzen zidan. Nik banekien burutazio hori nahiko pertsona zoroarena zela, baina, hala ere, horretan pentsatzen pasatzen nuen egun guztia, gava eta eguna, galdera berberekin bueltaka eta bueltaka, eskutitzak behin eta berriro irakurtzen. Baina banekien hara joanda



ere ia ezinezkoa izango zela hain handia den herrialde batean Ivan aurkitzea. Nire amaren heriotzaren pena ere apur bat ahaztu zitzaidan. Gogoratuko zen bera nitaz?

Hainbeste gogo nuen bera aurkitzeko, ikasketak utzi nituen. Dirua lastarren lortzeko taberna batean sukaldari bezala lana aurkitu nuen eta gero andere zahar eta dirudunen etxeak garbitzen nituen arratsaldez, diru kopurua ez zen oso handia eta gainera ia behartuta ikusten nintzen nire izebari hilero irabazten nuen diruaren zati bat ematera, nahiz eta berak lehengo momentuan diru hori ez onartu, azkenean eskua luzatuz dirua eskuetatik kentzen zidan. Esan beharra dago nire izeba nahiko pertsona zuhurra eta petrala zela, eta askotan nahiago izaten nuela ni bakarrik bizi izatea eta izeba zahar hori albotik kentzea. Bi hilabete pasa ondoren eta etxera heldu nintzenean lanetik, han ikusi nuen nire izeba lurrean botata eta haizerik gabe. Laister izan zen bere heriotza.

Nahiz eta berarekin ez konpondu, izeba zen nire senide bakarra eta maite nuen. Jakin

nuenean ni nintzela bere familiako pertsona bakarra, eta bere etxea eta berak aurreztutako diru guztia niretzako zela, sentitzen nuen bakardadearekin Errusiara bidaiara egitea erabaki nuen. Gainera, nik pentsatzen nuen diru gutxi izango zuela, baina azkenean konturatu nintzen nire izeba nahiko zuhurra zela eta ez zuela zeukan dirutik ezer gastatzen. Eta nik pentsatzen izeba pobrea zela eta nire dirua ematen. Diruduna zela jakin nuenean ez dakizue zer nolako poza, nire irribarreak aurpegi osoa okupatzen zuen eta irribarre horren zergatia batez ere izan zen azkenean Errusiara joateko dirua izango nuela.

Aste batzuk pasa ondoren bidaiara prest neukan 3 aste igaroko nituen. Errusian ez nekien nora joan ezta zer egin ere, baina ez nuen horretan pentsatzen, nire buruan herri txikitxo bat ikusten nuen eta hango 40 edo 50 pertsonen artean Ivan.

Ivan jartzen zuen kaxa hartu nuen berriz ere eta ohe gainean eseri nintzen. Kaxako tapa ia apurtu nuen ireki nahian. Irakurri gabe zeuden eskutitz ia irakurri ezinak hartu

nituen eta horietako bat hartu nuen. Pisu izugarria zeukan. Paperezko orria zorotik ateratzerakoan urrezko lepokoa jausi zen, lurretik hartu eta hain polita iruditu zitzaidanez, jantzi egin nuen. Atzeko aldean inskripzio bat zuen, errusiarrez jarrita zegoen eta ez nuen ezer ulertzen.

Jada hegazkinean nengoen pozez beteta eta hainbeste gogo nuen Ivan ikusteko ezin niola irriari eutsi. Hegazkina ia hutsik zegoen. Ordu batzuk geroago banengoen Moskun. Hotela aurkitzea izan zen nire lehenengo zeregina, hotel on bat aurkitu nuen, ez zitzaidan inporta nuen dirua gastatzea. Seguruenik hura izango zen nire lehen eta azken bidaia nire bizitza osoan.

Nire poltsan eskutitzak neramatzan eta baita argazkiak ere lagun nintzaten Ivan aurkitzen. Autobusa hartu eta lehenengoz bizi izan zen herrira joan nintzen, hara iristerakoan eskutitz bat hartu eta remitea begiratzuz, iritsi nintzen etxe zahar bateraino, hutsik zegoela zirudien. Etxeari buelta osoa eman ondoren ortura sartu nintzen, ortuak ez zirudien abandonaturik. Dena fruitu eta landare eman ondoren ortura sartu nintzen, ortuak ez zirudien abandonaturik. Dena fruitu eta landare zainduaz beterik zegoen. Etxea oso txi-

kia zen, bi pertsonentzako ere eskasa zirudien. Bat-batean tomate landare baten atzealdean gizon zahar bat ikusi nuen, susto ederra jaso ondoren bera ere ohiuka hasi zen baina nik ez nion ezer ulertzen eta korrika alde egin nuen beldurrez, atzerantz begiratzuz. Etxeko lorategiaren atetik atera nintzen eta nahi gabe beste gizon gazteago batekin topo egin nuen, honekin zortea izan nuen, hau Balentziarra baitzen. Honek, gizon zaharra lasaitu zuen eta galdetu nion ea ba al zekien zerbait etxe horren biztanleei buruz. Eta hau esan zidan:

-Lehen hemen amona zahar bat bizi zen bere bilobarekin, amona hil egin zen, oso gaixorik zegoen eta umea orfanato batera joan zen, gero nire agintariak etxea erosi zuen eta ortu bezala erabiltzen du eta etxe txikian gauzak gordetzen ditu, badakizu, aitzurra eta halako gauzak.

Eskerrak eman eta alde egin nuen etxe horretatik aitona oraindik marmarka zegoela. Momentu baten zer egin jakin gabe geratu nintzen, baina gauza batzuk argiago zuden, banekien zergaitik utzi nion Ivan gure etxera etorzeari, bere amona hil zelako eta orfanato batean zegoelako.

Taxian berriro hotelera nindoala poltsatik



IPURTERRE IPUIN LEHIAKETA

gutunak atera nituen eta orduan konturatu nintzen bi gutunen remitea desberdina zela. Taxi gidariak gutuna jartzen zuen helbidea eman nion eta hara eraman ninduen. Bide luzea zen eta iritsi nintzenerako gava zen, horregaitik beste ostatu bat hartu nuen herri hartan lo egiteko. Hurrengo egunean orfanatora joan nintzen eta hango zuzendariarekin hizketan ibili nintzen gaztelera piska bat baitzekien. Argazki bat erakutsi eta bat-batean gogoratu zen Ivanetaz, gordeta zituen paper batzuk atera eta esan zidan 11 urte zituenean adoptatu zuela familia batek, nik esan nion ea esango zidan zein den familia hori baina ezinezkoa zela esan zidan, ez zuen amore eman, orduan esan nion ea zekien zerbait lehen bizi izan zen tokien buruz eta esan zidan lehenengo gizonak esan zidanaren gauza berbera. Gero zergaitik nengoen



han esan nion eta berak esan zidan:

-Ivan hona iritsi zenean beti zegoen eskutitzak bidaltzen eta bidaltzen. Bagenekien pasatutako uda guztietan Euskal Herrira joaten zela, baina lau edo bost urte hemen igaro ondoren adoptatu egin zuten. Bagenekien Euskal Herriko famili bat adoptatzen saiatu zela, baina ezinezkoa zen familia euskaldunak ez zuen hainbeste diru Errusiatikhorra eramateko eta horregaitik Ivanek amonaren urrezko bitxiak bidaltzen zituen hemendik Euskal Herriraino hauek urre hau saltzeko eta dirua edukitzeko bera adoptatzeko. Familia honek dirua lortu zuenean Ivanek bazuen familia bat adoptatzeko prest eta hauekin joan behar izan zuen:

-Zergaitik duzu hainbeste gogo zer gertatu den jakiteko? -galdetu zuen zuzendariak.

-Nin nintzelako adoptatu nahi zuenaren alaba eta nire amak oso txikia nintzenez ez zidalako ezer kontatu. Orain hilda dago eta ni bera aurkitzera etorri naiz eta gauza batzuk argitzera -esan nion nik.

Orduan galdetu nion:

-Esango didazu mesedez zer jartzen duen koilara honetan?

Berak lepokoa hartu eta esan zidan:

-Ivanentzat zure amonaren partez.

Eskerrak eman eta alde egin nuen. Konturatu nintzen lepoko hori Ivanena zela, bere amonaren oparia zirudien eta seguruenik nire amak ez zuela salduko oso garrantzitsua irudituko zitzaiolako.

Bi aste eman nituen Ivan bilatzera nora joan jakin gabe, desesperazioan jendeari argazkiak erakusten eta jakin gabe zer egin.

Azkenengo eguna iritsi zen dagoeneko ez nuen batere pistarik non egongo ote zen Ivan. Etsita ohean negarrez egon nintzen argazkiei begira eta pentsatzen agian nire amak ni Ivan aurkitzea izan nahiko zuela jakinda orain hainbeste esfortzu egin zituela Ivan Euskal Herrira ekartzeko. Hori pentsatuz etsipena besterik ez nuen buruan eta lo geratu nintzen. Amets polit batean murgilduta nire ama agertzen zen, ez naiz ondo



gogoratzen zer esan zidan, baina irribarrea zuen ahoan eta honek lasaitu ninduen, ametsak luze iraun zuen, hain luze ere, aireportura iristeko orduan ni lotan nengoen bitartean, irribarre handi batekin eta denbora berean negarrez.

Esnatu nintzen ia gosaldu gabe maleta hartu eta joan behar izan nuen etsituta, ez nuelako Ivan aurkitu eta pozik saiatu egin nintzelako. Korrika eta korrika bat-batean pertsona baten kontra topo egin nuen, honek kontuz ibiltzeko esan zidan. Momentu horretan ezaguna iruditu zitzaidan mutila, baina hainbeste presa nuen ez nuen oso ondo ikusi. Korriketan hegazkinera igo nintzen eta eseri nintzenezan lehen topo egin nuen mutila zegoen nire ondoan, eseri eta hitz egiten hasi ginen bat-

batean esan zidan:

-Nondik atera duzu lepoko hori?

Erantzuteko denborarik eman gabe lepoko-ari buelta eman zion eta jartzen zuena irakurri zuen:

-Hau nirea zen, nondik atera duzu?

Nire aurpegi tristea bat-batean aldatu zen. Aurkitu nuen bilatzen ari nintzen pertsona! Ivan zen. Bera Euskal Herrira zetorren gu aurkitzera. Kasualitate handia bai, baina horrek ez zeukan garrantziarik. Bik oso pozik geunden. Gure erlazioak aurrera jarraitu zuen, azkenean ezkondu eta seme-alabak eduki genituen:

-Eta istorioa amaitu da.

-Ze istorio polita!

-Afarria prest dago. -esan zuen aitak- Denok afaltzera!

DBH 1-2 (D EREDA)

"NEGU"
Marina Azkonizaga



Gure zuhaitza

Eguzkiak dirdir egiten zuen uretan, goiz izugarri polita zegoen udako egun hartan, jendeak kirola egiten zuen, eta hondartzara ere joaten ziren.

Kostaldeko herri batean kanpa berdeberde bat zegoen, andre bat korriketan zebilen:

-A ze egarria daukadan, nahiko nuke hemen iturri bat egotea.

Hori esan zuen orduko han iturri bat ageri zen eta zuhaitz batetik hosto bat jausi zen.

-Hau bai kasualitatea! Orain fruitu-dendara joango naiz sagar batzuk erostera.

Han bertan sagarrondo bat ageri zen.

-Hau bai dela kasualitate hutsa! Oso arraroa da hau. -Andreak beste gauza

arraroren bat pentsatzen hasi zen.

-Beste gauza bat eskatuko dut, ea zer gertatzen den. Bizikleta bat nahiko nuke herrira iristeko. Eta nola ez, han bizikleta polit-polit bat agertu zen. -Eta zuhaitz berdinetik hosto bat jausi zen lurrera.

Andreak bazekien magikoa zela:

-Ez diot inori esango zuhaitz hau magikoa dela!!

Baina momentu hartan ume bat pasatu zen handik eta entzun zion. Umea korriketan joan zen herrira eta jende guztiari kontatu zion, baina ez zuten sinistu.

Hurrengo goizean bost herritar joan ziren eta desio batzuk eskatu zituzten. Batek zapa-tila berriak, besteak patin batzuk... desio bakoitzarengaitik hosto bat jausi zen lurrera.



-Hau mirari bat da!! –aipatu zuen batek. Egun horretako gaua heldu zen. Herritar guztiak bere etxeetan zeuden. Gaueko ordubata zen, bero izugarria zegoen. Zuhaitza lotan zegoen, dirdira polit-polit bat egiten zuen ilargiko argiarekin.

Bat-batean pertsona bat agertu zen, ez zen ikusten neska ala mutila zen. Beltzez jantzita zegoen, eskularruak zeuzkan eta buruan buf itxurako trapu beltz bat. Zuhaitzaren ondora joan eta igotzen hasi zen.

Poltsa handi bat zeukan eskuan hostoak kentzen hasi zen eta poltsan sartzen, berak pentsatu zuen desio guztiak berarentzat izango zirela eta hosto guztiak lapurtu zituen.

Etsera heldu zenean desioak eskatzen hasi zen eta konturatu zen hostoek ez zutela funtzionatzen zuhaitzetik jausi behar zirela ibiltzeko.

Hurrengo goizean herritarrak zuhaitz-raino iritsi ziren eta ez zuten historik ikusi, bakarrik lurrean batzuk.

Orain itxaron behar dute udaberriraino berriro desioak eskatzeko.

Udaberria heldu da eta berriro hostoak jaio dira, zuhaitzean. Orain aukera daukate berriro desioak eskatzeko.

Baina zuhaitza oso gaixo dago, hostoak jaio dira, baina desioak ez dira betetzen. Batek koaderno bat eskatu eta koaderno ageri zen, baina orririk gabe. Besteak boligrafo bat eskatu zuen eta boligrafo ageri zen, baina tintarik gabe, eta txarrena ez zela hosto bat bakarrik jausten, baiza eta 3 edo 4 hosto.

Orduan herritarrek bilera bat egiten dute. Portal guztietako ateetan hauxe jartzen dute:

“Gure zuhaitza oso gaixo dago, zeozer egin behar dugu. Bilera bat egingo dugu, bihar 20, zortziretan zuhaitzean.

Mesedez ahala duena etorri, jende gehiagorekin hobeto.

Zuen alkatea.

Bernardo”



Hurrengo eguneko 7.30ak ziren, han jendea agertzen hasi zen. Bak eman zuten herriko elizan eta une horretan alkatea agertu zen.

-Kaixo herritarrok, oso gaizki pasatzen ari gara zuhaitz batengatik. Zeozer laister ez badugu egiten zuhaitzak ez du iraungo eta hilko da. Nik pentsatu dut, egun guztietan etorri behar garela bisitatza, baina ez desioak eskatzera, ez. Ez dut uste, inork nahi duela zuhaitza gaixoago ipintzea.

Herritar guztiak ados jarri ziren eta denen artean izen bat jarri zioten: Dirdi.

Hortik aurrera ez zuen inork desiorik eskatu eta beti 5 edo 6 familia bisitatza joaten ziren.

Dirdi oso ondo jarri zen eta berak desio bat eskatu zuen: herritar guztientzako poza eta alaitasuna.

DBH 1-2 (6 ERDUA)

“AMUARRAINA”
Sandra Sanchez



Barreak eta magia nagusi s



aiatzak 14;
goizeko
10.00ak;
Hezkuntza
Esparruko
Antzoki
Nagusia...

Goiz izugarria pasatuko dute bertan batutako 300 lagunek. Eibarko ikastetxe guztietako hainbat ikasle batu dira. Izan ere, Ipurterre ipuin lehiaketako egun handia ailegatu da: sari banaketa eguna.

Euren lekuan jarri eta lehenengo sorpresa, Eriz magoa agertu da taula gainean, "oso ikuskizun berezia egiten du Eriz magoak. Umeen partehartzea bilatzen du. Hainbat ume eta irakasle bat ere igo ziren taula gainera eta Eriz magoak zuzen zuzenean erabili zituen magia

egiteko. Jarrita zeudenek ezin hobeto pasatu zuten, taula gainean zeudenek beharbada lotsa piskat ere pasatuko zuten, baina oso giro ona sortu zuen magoak", azpimarratu du Ainara Labado, ...eta kitto!ko ordezkariak.

Sariak etxera

Ez zen hori izan Eriz magoa taula gainean izan zen lehenengo aldia. Lehenengo saioa eta gero, DBHko ipuin irabazleek aurtengo saria jaso zuten. Aurten, gainera, akzesita ere banatu da, "DBHko bigarren zikloko D ereduan epaimahaiak akzesita ematea erabaki zuen, ipuin irabazle eta akzesitaren maila ikusita. Ez da ohikoa izaten, baina horrela egitea erabaki dugu", azpimarratu



ari banaketa egunean

dute ...eta kitto!n. Oraingoan ere urduri, baina pozik. Argazkiak egin eta berriro bakoitza bere lekura.

Eriz magoak guztiz bete zuen taula, magia ikuskizun izugarria eskaini zuen. Hori amaituta Lehen Hezkuntzako ume irabazleak, banan-bana taula gainera igo ziren. Ipurterre lehia- ketako babesleek eskainitako materialarekin osatutako oterra jaso zuen bakoitzak eta Eibarko liburudendetan gasta- tzeko erosketa txartela ere jaso zuten.

Amaiera Eriz magoak eskaini zuen berriro ere. Argazkietan ikusi daitekeen moduan Eibarko ikastetxeetatik etorritakoek auke- ra ezinhobea izan zuten. ...eta kitto!ko lagunak pozik daude, "egun handia izan zen.



Babesleei eskerrak eman behar dizkiegu, Uniko lagunei bereziki, urtero eskaintzen diguten laguntasuna izugarria da-eta. Bide batez, datorren urtean parte hartzeko animatu nahi ditugu Eibarko ume eta gazte guztiak", gogoratu dute ...eta kitto!n.



